

1986: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Legea eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Batzar Konstituziogilea.

Euskalerriko Eskautek, Gaztetxoen Koordinakundeak, EDE Fundazioak, Euzko Gaztedi EGI-k, Euskadiko Gazte Sozialistek eta Gazteen Gurutze Gorriak, besteak beste, EGK sortzearen arduradun izan ziren behin-behineko batzorde eragilean parte hartu zuten.



1987: Antimilitarismoaren aldeko lana izan zen EGKren lehen jarduera-ildo nagusia.

EGK antimilitarismoaren aldeko lanean murgildu zen, eta horrek bere jardueraren zati handi bat hartu zuen lehen urteetan. Kontzientzia-eragozpenari buruzko informazio-bulegoak sortu ziren, “mili”-aren aurkako eta jostailu belikoen aurkako komunikazio-kanpainak garatu ziren, eta abar.



1997: EGK-k bakearen hezkuntzari buruzko lehen Euskal Liburua argitaratu zuen.

Militarraren esparrutik harago, Kontseiluak bere lanaren horizonteak zabaldu zituen: hala, 1997an, EDE Fundazioa eta Urtxintxa Eskolaren laguntzarekin, Bakearen Hezkuntzari buruzko lehen Euskal Liburua argitaratu zuen.



2002: Astialdi Foroa sendotu zen Euskadiko astialdiaren erreferentziazko gune gisa.

1997an Bizkaian sortutako astialdi eskolen eta federazioen koordinakundea 2000ko hamarkadatik aurrera Arabara eta Gipuzkoara zabaldu zen, lurralde bakoitzean lan-talde bana eratuz. Ordutik, ahotsak batzea eta eskaerak, kexak eta beharrak partekatzea beharrezkotzat jo zen.



2004: Etxebizitza Guztiontzat! Plataforma sortu zen.

Sareak sortzeko lanaren barruan, EGK etxebizitzaren inguruko diskurtsoa garatzen hasi zen eta ehun bat eragilek osatutako Etxebizitza Guztiontzat! Plataforma bultzatu zen.



2009: Astialdi Foroa bultzatu zen astialdiaren inguruko lehen kongresua antolatu zen: Tipi Topa.

Astialdi Hezigarriaren inguruko Tipi Topa kongresuak Euskadiko eskola eta federazio gehienak bildu zituen, baita ehunka gizarte- eta hezkuntza-eragile ere.



2011: EGK-k 25. urteurrena ospatu zuen.

Eusko Jaurlaritzak EGKri ematen zion dirulaguntza izenduna nabarmen murriztea erabaki zuen, eta, horrek, haren funtzionamendua eta biziraupena arriskuan jarri zituen.



2019: EGK-k Etikasi lehen edizioa antolatu zuen Ipar Irlandara eta Auschwitzera bisitak eginez.

Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatu zen lehen aldiz Etikasi. Proiektuaren helburua etikari eta giza eskubideei buruz ikastea da, besteak beste, Europako leku enblematikoetara edo indarkeria-gertaera larriek astindutako eskualdeetara hezkuntza-bisitak eginez.



2022: Eusko Jaurlaritzaren 2/2022 Gazteriaren Legeak EGK administrazioen aurrean gazteriaren solaskide baliozkoa dela aitortu zuen.

Hainbat saioren ondoren, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Gazteriaren Legea onartu zuen, EGK-k dozenaka lan-saiotan egindako ekarpenak entzunda.



2026: EGK-k 40 urte betetzen ditu.

Zubi-lana, sarea, eragina, lankidetza, kezkak, aldarrikapena... Hitz horiei 40 urtez eutsi zaie, eta EGK-k gazte izaten jarraitzen du, gazteok egina eta gazteentzat.